



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteartea
2008-02-12**

VIURTEA 1.360.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Ezker abertzaleak greba orokorrera deitu du etzirako «egoera salatzen»

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Herritarrei «erantzuteko» eskatu diete «EHAK eta EAEn etetea gaitzesteko»

MOZIOAK Datozen egunetarako ezohiko bilkurak eskatu dituzte, bertan aurkezteko eta eztabaidatzeko 3



Eskualdeko ezker abertzaleko ordezkariak agerraldia egin zuten Anoetan. I.G.

Migel Soroa pilotari ezaguna hil da Tolosan, 82 urte zituela

ELDUAIN Gaur izango da hileta elizkizuna; 1954ean Eskuz Banakako txapela irabazi zuen z

Diego Riaño finalurrekoetarako sailkatu da



Igande arratsaldean Amaroizko dantza taldekoek emanaldi ederra eskaini zuten. A. OTEZABAL

JENDE ANDANA SAN BLAS JAIETAKO AZKEN EGUNEAN

TOLOSA Eguraldia lagun izan zuten eta antolatzaileek azaldu dutenez, «aspaldiko urteetako egunik jendetsuena izan zen igandekoa» 4

Migel Soroa pilotari ezaguna hil da, 82 urte zituela

Pilota » Eskuz banakako txapelketa irabazi zuen 1954. urtean Barberitoren aurka irabazi ostean, gaur izango da hileta elizkizuna.

ERREDAKZIOA

Migel Soroa pilotari ezaguna hil zen atzo Tolosan, 82 urte zituela. Elduaingoa jaiotzez, eskuz banakako txapelketa bat irabazi zuen 1954an. Urte berean, lau t'erdiko txapelketa ere irabazi zuen.

Eskuz banakako bi final jokatu zituen. 1954an, Eibarren, Barberito hartu zuen mende, 22-4, eta hurrengo urtean, 13-22 galdu zuen Arriaranen aurkako finala, Eibarren. 24 urte zituela egin zuen debutua.

Omenaldi xumea Beotibarren
Gaur izango da haren aldeko hileta elizkizuna, 18:00etan, Tolosan, San Frantziskon elizan. Lur, berri, Elduainen emango diote gaur eguerdian, 12:00etan. Atzo Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu, tako estelarren aurretik omenaldi xumea egin nahi izan zioten pilota zaleek. Minutu bateko isiluna egin zuten eta ondoren txalo zaparrada eskaini zioten Migel Sorozenari.



Migel Soroa. MARTA SAN SEBASTIAN

Zaletasuna eta ongi pasatzea

2003ko irailaren 3an egin zion TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK elkarrizketa Migel Sorolari. Berak azaldu ziguz, «lehen zaletasuna eta ongi pasatzea zen pilotan aritzeko arrazoia, eta orain gazteek lanbidea bilatzen dute». Euskal Herrian pilota zerbait berezia zela zioen, «asko bizitzen da eta zaletasuna handia izan da beti, beti izan da desberdina; dena den, zaletasuna ez da gaur egun handiagoa, lehen beti ziren frontioiak beteta, nahiz eta txapelketarik ez izan. Bestalde, pilotan hastera saiatzeak merezi duela uste dut».

» ERREAKZIOAK

«Kirolari eta gizon bezala eredu bat izan zen»

Ander Letamendia
PILOTA MEDIKUA

Pilotari bezala eredu bat izan zen, eta baita gizon bezala ere. Berandu hasi zen profesional mailan, baina 47 urte egin zituen estelarretan, eta 2 edo 3 belaualdirekin lehiatu zen. Tolosan profesional mailan egin zegoen beraren aurretik pilotari-rik. Omenaldia egin zioten, eta herri osoa izan zen berarekin, eta Izaskungo domina ere eman zioten.

«Elduianen oso maitatua izan da»

Patxi Zeberio
ERREMONTISTA

Elduainen pilotari handi bezala dugu guztiok, hala da ezaguna. Eta horretaz gain, pertsona handi bezala ezagutzen dute denek. Nik kirolari bezala ez nuen ezagutu, baina badakit oso ona izan zela, eta pertsona bezala, berriz, gizon jatorra eta umila izan zela. Herrian oso maitatua izan zen.

«Gizon jatorra, bai kanta barruan baita kanpoan ere»

Elias del Villar
PILOTA EPALILE OHIA

Ni pilota epaile bezala aritzen nintzen orduan, eta herriarteko txapelketan jarri nuen jokatzeko Migel. Oso ona zetorrela ikusten zen, eta handik gutxira izan zen txapeliduna. Gizon jatorra zen, zintzoa, bai kanta barruan, bai eta kanpoan ere, eta horregatik izaten herriar guztiak errespetu handia. Gizon maitatua zen.

«Gauza onak baino ez dira entzuten berari buruz»

Anizeto Lazkano
PILOTA OHIA

Nik pilotari bezala 1973. urtean debutatu nuen, eta bera oraindik ere ari zen, baina segituan utzi zuen, beraz, alde horretatik gutxi ezagutu nuen. Dena den, pilotari handia izan zen, eta pertsona bezala ere zoragarria. Tertulian ere aritzen ginen berarekin pilotalekuan, eta gizon jatorra zen. Berari buruzkoak gauza onak baino ez dituzu entzuten.

«Pilotari fenomeno eta gizon jatorra eta zintzoa»

Joxean Tolosa
PILOTA OHIA

Pilotari bezala ez nuen gehiegi ezagutu, ez baikin garai berean egokitu, baina pilotari fenomeno izan zen, eta batez ere, ezker dotorea zuen. Gogoan dut, esaterako, Tolosan herritar ugari omenaldia egin zioteneko. Kirolari bezala, gizon bezala ere oso ona izan zen, jatorra eta zintzoa.

«Pilotari handi bezala gogoratuko dugu»

Julian Iparragirre
PILOTA ADITUA

Pena handia sentitzen dut. Pilotari handi bezala gogoratuko dugu. Kantxan errespetu handikoa, eta baita kantxatik kanpo ere. Arratsalde askotan izan dugu bera Beotibar pilotalekuan ikusteko aukera. Kirolari bezala jatorra izateaz gain, pertsona bezala ere, berarekin solasean egiteko aukera izan dudanez, oso atsegina zen.

Gutunak

Euskal demokrazia garatzea

Hizkuntz eskubideak sistematikoki urratzen dira bizitza sozialaren eremu askotan, esparru juridiko politikoek ez baitituzte euskaldunen eta Euskal Herriaren eskubideak bermatzen. Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren txostenek egiaztatzen dute bezala.

Euskaldunok menderakuntza nazional baten biktima gara. Espainiak eta Frantziak gaztelania eta frantsesa sararazi dituzte euskararen lurraldean. Ez dira Euskal Herriaren berezko hizkuntzak. Euskara baita Euskal Herriaren hizkuntza nazional bakarra. PSOEk eta EAJk elebitasun sozialaren, orekatuaren eta iraunkorren mitorra eraikei dute Euskal Herri euskaldunen ikusmoldea baztertzeko.

Horrela, PSOEk gaztelania inposatzea irauaraztea, euskararen lurralde kolonizatzea eta Espainia bakarra uniformatzea bermatzen du; eta EAJ bere mendeko jarrera zuritzen du. Euskaraz ez dakitenei lanpostu publikoetan aritzeko pribilegioak emanda, eta erdara eremu pribaturatuta mugatu gabe ezinezkoa baita normalkuntza aurreratzerik euskararen herrialde guztietan. Neurri horiek derrigorrezkoak eta proportzionalak dira, eta legezko egin behar dira Euskal Herria euskalduntzeko. Etxean arrotz izan gabe, euskaraz bai ahal izateko ulertu egin behar baidakitzute.

PSOE eta EAJrenak menpeko politika bakarraren bi ikusmolde osagarriak dira, euskal herriarrek hizkuntz politikaz duten jarrera aldatzea zailtzeko eta euskararen normalkuntza zapuzteko. 25 urte ondoren, egungo politiken emaitza eskasak, joera negatiboak neutralizatzen ezintasunak eta euskararen erabilera urriak irlandaratze prozesua erakusten baitute. Aldaketa politikoa, beraz, ezinbestekoa da. Tokian tokiko baldintza ezberdinetara egokitutako hizkuntz politika nazionala, burujabea eta bakarra gauzatzea beharrezkoa baita euskalduna eleantuzeko Euskal Herri euskalduna erakitzeko bi belaualditan.

Independentzia derrigorrezkoa da Euskal Herri euskalduna bermatzeko eta berdintasun maila berean jartzeko euskaldunak, espainolak, frantsesak eta europarrak; euskara, gaztelania, frantsesa eta europar hizkuntzak; Euskal Herria, Espainia, Frantzia eta Europako estatuak. Herriarrek, hizkuntzak eta herriak berdina baikara quintasuneari.

Euskal Herria euskalduntzeko prozesuak herri gogoaren bultzada nahikorik ez badu, Irlandarena gerta daki-guke. Euskal nazioaren ukazioa gainditu eta esparru demokratikoa behar dugu. Premiazkoa da etzi kalera ateratzea, konponbiderako proposamena zabaltzea, eta botoen ukalizioa eragitea, pertsona ororen eskubide guztiak zilegi izan daitezken. Esparru demokratikoa behar dugu Euskal Estatuari ateak irekitzeko, independentzia eta sozialismoa erakitzeko, Euskal Herria euskalduntzeko.

Inazio Agirre (ezker abertzaleko kidea). Tolosa

TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEA
Alkatetza honek, gaurko egunez sinatutako 2007/0205 dekretuaren bitartez, honako hau ebazti du:
Lehena.-Tolosako Udala Plangintzako Aholku Batzordeko hautagai tituluak izendatzea:
- Alkatea, Jokin Bildarratz Sorron, Batzordeko lehendakaria izango dena.
- Hirigintzako zinegotzia, Jokin Azkue Arrastoa, Batzordeko lehendakariordea izango dena.
- Ingurumeneko eta Tokiko Agenda zeko zinegotzia: Yurre Peñagarikano Zubeldia.
- Udalean ordezkari den alderdi politikoa bakoitzeko zinegotzi bano,
o PP: Angel Yañez Ares
o PSOE: Oscar Hugo Renedo Nieto
o EA: Andoni Iturzaeta Arbillaga
o EAJ: Olatz Peon Ormazabal.
o Aralar-Ezker Batua: Agurtzane Uzin Berazaldua.
- Udalerriko merkatari eta enpresari elkarten ordezkaria: Igarondoko Gerardo Arin Eceiza.
- Udalerriko minusbaliatuen elkarten ordezkaria: (Aslemegi) Rafael Arranz Pérez.
- Tolosaldeko Mendi Nekazaritza Elkarteko (Tolomendi) ordezkaria: Xabier Almandoz Aranburu.
- Aurreko puntuetan jasotzen ez diren kultura, gizarte, kirol edo auzo elkarten hiru ordezkari:
o Enba: Xabier Iraola Agirrezabala.
o Peñascal Fundazioa: Guillermo Malkorra Altuna
o Tolosa Futbol Kluba: Iñaki Arratibel Imaz
- Eskolako Agenda 21eko ordezkaria: Juan Unzueta Garmendia.
- Erretengibel, SAko ordezkaria: Angel Uranga Txurrutua.
Bigarrena.-Aholku Batzordearen Idazkaria izendatzea: Maria Jesús Garaialde Salsamendi.
Hirugarrena.-Udaletxeko Berdintasun teknikaria gonbidatzea aholku batzordean parte hartzea, hitz egiteko eskubidearekin eta boto eskubiderik gabe, Tolosako Udala Plangintzako Aholku Batzordearen Araudia egokitu eta Tolosako Berdintasun Kontseilua eratu bitarte, une horretatik aurrera Berdintasun Kontseiluak izendatutako hautagaiak parte hartuko duelarik gainontzeko kideen eskubide eta betebeharrekin. Laugarrena.-Ohiko Bilkurako deialdia: 2008ko otsailaren 14an, arratsaldeko 14:30tan, Udaltzatza Aretan. Gai ordena:
1. Tolosako Udala Plangintzako Aholku Batzordearen eraketaren berri ematea eta kide titularren aurkezpena.
2. Udala Plangintzako Aholku Batzordearen funtzioen berri ematea eta epe motzerako egin beharrik edo lan programa zehaztea.

Tolosan, 2008.eko otsailaren 7an. ALKATEA.



Inauterien azken arrastoak

TOLOSA » Hausterre egunak iragarri ohi du Inauteriak amaitu direla, baina oraindik ere herenegun izan ziren Inauterien zantzuak. Musika Eskolako ikasleak eta hainbat txarangatako kideak kalera irten ziren. I.T.

«Egoera salatzen», greba orokorrera deitu du etzizarako ezker abertzaleak

Politika » EHAK eta EAE-ANVren etetea gaitzesteko; honen aurrean herritarrei «erantzuteko eskaera» luzatzen diete.

ESTI EZEIZA

EAE-ANVren eta EHAKren legez kanporatzei aurre egiteko, eta, oro har, «Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoeraren» kontra greba orokorra antolatuta du ezker abertzaleak otsailaren 14rako, hau da, ostegunerako.

Ezker abertzaleak «gogor salatu» nahi du EHAK eta EAE-ANV alderdiaren etetea. Beraien esanetan, «neurri honek zuzen-zuzenean jotzen baitu independentismoaren aurka». Beraz, Euskal Herri osoaren kontrako erasoa dela diote. Halaber, herritar guztien erantzuna eskatzen dute, eta datozen egunetarako deitutako mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen diete.

Ezker abertzalekoen esanetan, «aldaketa garaian gaude». Negoziazio saiakeraren ostean, haustura eman da, non «Espainiako Gobernuak eta berai kudeatzen duen PSOE sekulako uholde errepresiboa jarri duen martxan». Beraien ustetan, «Euskal Herriak burujabetasunarako daraman bidea errepresio bidez soilik gera dezaketela» uste dute. Zentzu honetan, «herri honen aurka edozein tresna erabil dezaketela uste dutela» salatzen dute ezker abertzalekoek. Dena den, baimen hori, PSOE eta PPK soilik ez dutela ematen diote, «Madrilgo senatuan dauden EAJ, EA Na Bai eta EBK sinatu zuten agiriak horrela agertzen baitu».

«Salbuespen egoera honi Stop! esateko ordua» dela uste du ezker abertzaleak, eta «independentismoarekin ezin izango dutela bukaturako tenorea».

» DATOZEN EGUNETARAKO MOBILIZAZIOAK

■ **Anoeta.** Gaur 19:00etan batzarraren egungo dute udaldegian. Biluraren jorratuko den gaia «etetea, egungo egoera eta eman beharreko erantzuna» dira.

■ **Leitza.** Bihar 21:00etatik aurrera itxialdia egingo dute, hurrengo egunerako arte. Ostegunean, manifestazioa deitu dute 12:00etarako. Hau plazatik abiatuko da. Bestalde, egun berean, 21:00etan, 15 minutuz, argi guztiak itzaliko dituzte eta aldi berean, zarata aterako dute.

■ **Tolosa.** Bihar eskualde mailako manifestazioa egingo dute 19:30ean, Triangulotik abiatuta.



«EAE-ANVren eta EHAKren etetea salatzen» mobilizazioak egin dira besteak beste, Alto eta Tolosan. HITZA/EZEIZA

EAE-ANVk mozioak aurkeztu ditu eskualdeko hainbat herritan

Politika » Datozen egunetarako Ezohiko Osoko Bilkurak eskatu dituzte, mozioa eztabaidatu eta onartzeko.

E. EZEIZA

EAE-ANV alderdia pasa den urteko hauteskundeetara aurkeztu zen herritan, mozio bat aurkeztu du, non «alderdiaren eskubideak bere osotasunean bermatuak izatea» eskatzen den. Hori dela eta, mozioa eztabaidatua izan dadin, eskualdeko zenbait herritan, Ezohiko Osoko Bilkurak egingo dira, datozen egunetan. Honen bestez, «batzar hauetara joateko deia» luzatu diete herritarrei.

Mozioaren baitan, Udalak onartu ditzan sei puntu azaltzen dituzte. Lehena izango litzateke, «Udalak oso larritzat jotzea Espainiak EAE-ANVren suspentsioa erabakitzea, honen independentzia helburu duen herri sektore zabalak kriminalizatzen baitu». Bigarren puntuak dio, «Udalak herritarren borondatea izango duela oinarri, eta herritarren borondatearen aurka egiten duten lege edo erabakie ez diela inolako zilegitasunik aitortuko».

Hurrengo puntua onartuz, Udalekoek «babes osoa eskainiko lieke EAE-ANV udal taldeko kideei eta erabaki honetatik eratorri daitezkeen ondorioei aurre egite-

» EZOHIKO OSOKO BILKURAK

■ **Aduna.** Atzo 20:00etan egin zuten Ezohiko Osoko Bilkura.

■ **Alegia.** Gaur 20:00etan egingo dute Ezohiko Osoko Bilkura.

■ **Ametzeta.** Astelehenean egingako batzarrean Ezohiko Bilkura egiteko eskatu zioten.

■ **Anoeta.** Gaur 20:00etan Ezohiko Osoko Bilkura egingo du.

■ **Asteasu.** Mozioa aurkezteko asmoa dago, baina oraindik zehazteko noiz eztabaidatuko den.

■ **Berastegi.** Mozioa aurkezteko asmoa dago, baina oraindik zehazteko noiz eztabaidatuko den.

■ **Ibarra.** Mozioa aurkezteko asmoa dago, baina oraindik zehazteko noiz eztabaidatuko den.

■ **Ikaztegieta.** Bihar Ezohiko Osoko Bilkura egingo dute 18:00etan.

■ **Leaburu-Txarama.** Mozioa aurkezteko asmoa dago, oraindik zehazteko noiz eztabaidatuko den.

■ **Leitza.** Gaur 20:00etan egingo dute Ezohiko Osoko Bilkura.

■ **Tolosa.** Gaurko Ezohiko Osoko Bilkura deitua zuen EAE-ANV, baina Udalak ez die erantzun.

■ **Villabona.** Ezohiko Osoko Bilkura egingo dute bihar 20:00etan.

■ **Zizurkil.** Gaur egingo dute 20:00etan.

ko konpromiso irmoa» hartuko luke.

Bestetik, «proiektu politiko guztien bideragarritasuna aldarrikat-

zea» eskatzen diote Udalari, baita independentzia ere.

Azken bi puntuei dagokionez, «Udalak erabakiari aurre egiteko, manifestaziora deitzea, herritarrei parte hartzera deitzea eta onartutakoaren berri ematea» eskatzen zaio. Manifestazioaren leloa *«Ilegalizaziorik ez! Demokrazia Euskal Herriarentzat!»* izango litzateke.

Bestalde, EAE-ANV Udal taldearen eskubideak «bere osotasunean bermatuak izan daitezkeen», neurri hauek hartzeko eskatzen zaizkie gainontzeko alderdi politikoiei: «2007ko maiatzeko hauteskundeetan herritarrek aukeraturiko ordezkari guztiak aitortzea eta hauen eskubide guztiak bermatu izateko neurriak hartzea». Honekin batera, «EAE-ANV Udal taldeak zein hautetsi bakoitzak dituen eskubideak bermatzea eta taldearen izaera errespetatzea». Bestetik, «hautetsiek udal jardueran era normalizatuan parte hartzeko aukera izatea» ejizitzen dute, eta «lana betetzeko, udal tresna eta baliabide zein diru ekarpenak bermatuak izatea». EAERen hautetsiek Udalaren ordezkari gisa bestelako erakundeetan dituzten ardurak eta karguak gorde eta «era normalizatu batetan bete ahal izatea ere bermatzea» eskatzen dute. Azkenik, Udal taldeak edo hautetsiek jaso dezaketeko «eskubide urraketa edota ondorioen aurrean Udalak babesa eta laguntza eskaintzea» eskatzen da.

L Laburrak

Karroza eta konpartsen dietak jasotzeko aukera

TOLOSA » Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketaren dietak jasotzeko, datu orria eta argazkia Aranburu Jauregira eraman beharra dago. Hilaren 16an amaituko da honetarako epea. Datu orriak Aranburun bertan, Kultur Etxean eta Internet bidez eskura daitezke, www.tolosakudala.net webgunean.

Haurren irakurzaletasuna bultzatzeko tailerra

TOLOSA » Martxan da haurren irakurzaletasuna sustatzeko, gurasoei zuzendutako tailerra. *Bulanretik mintzora* izeneko ekimenean parte hartzeko Haur Liburutegian eskuratu daitezkeen inprimaki bat bete behar da. Ikastaroa 0-6 urte bitarteko haurren gurasoei dago zuzenduta.

'Elidakura eta bihotza' hitzaldia izango da etzi

TOLOSA » *Elidakura eta bihotza* izenburupean, hitzaldia eskainiko du Jesus Martinez nutrizio medikuak. Saioa etzi izango da, Dispersario ondoan, 19:30ean.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Barraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Germikako arbola: 943 006900

Amarozko dispensa: 943 672637

Asuntzen klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutzegorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Ehizaren inguruko lege berriaren aurka azaldu dira eskualdean



Euskadi eta Gipuzkoako federazioetako lehendakariak eta Tolosaldeko ehiza elkarteko lehendakariak, bilduta. HITZA

Ehiza » Madrilen martxoaren 1ean egingo den manifestaziorako deia luzatu dute Gipuzkoako Federaziotik.

ERREDAKZIOA

Ehiztariak, tartean Tolosaldekoak, Espainiako Gobernuak ingurumen eta nekazaritza arloan oinarrituta martxan jarri duen legedi berri baten aurka agertu dira. «Lege zapaltzaile eta baztertzaila» horren aurka Madrilen martxoaren 1ean egingo den manifestaziora deia zabaldu die ehiztariak zehin ehiztari ez direnei Gipuzkoako Ehiza Federakuntzak.

Ehiztariak azaldukoaren arbera, «landa eta bere geroan sinisten dugulako» egingo dute protes-

ta. Landa-inguru, nekazal errenta eta lurra zaintzen dutenentzako ehiza «beharrezkoa» dela azaltzen dute. Naturaren kontserbazioak eta bere biodibertsitateak «gizartearen eta batez ere nekazariaren, ehizaren eta ehiztariaren ahalegina behar dutela» argudiatzen dute.

Ingurune naturalaren kontserbaziorako eta ehizarako ezartzen den legedia «interbentzionista» dela eta «desjabetu baino gehiago konfiskatu» egiten duela azaltzen dute. Ingurune naturalaren kontra doala diote, «babesten duela esaten duenaren aurka».

Kudeaketa publikoa «porrota» Besteak beste, ehiztariak salatzen dutenez, lege berriarekin administrazioak «gure lurrak eta ehiza-esparruak bereganatu nahi ditu». Zakurrak ez direla abereak diote,

«gure lagunak estimatuenak dira» eta salatzen dutenez, «sanitate eta garraio arau zentzugabeak ezartzen dizkigute».

Naturaren kudeaketa publikoa babestutako guneetan «porrot» bat da ehiztariaren ustez. Galtze arriskuan dauden espezie gehienek «lur eta ehiza-esparru pribatuetan bakarrik egiten dute aurrera» deritzote. Ehiza gaietan Europako legediari «murriztatzaileena» dagoela diote.

Manifestaziorako izena emateko Villabonako Eizmendi Armategian, Gipuzkoako Ehiza Federakuntzan eta ohiko ehiza elkarteetan egin daiteke. Azken eguna izena emateko hilaren 25a da. Federatutakoek 18 euro ordaindu behar dituzte eta federatu gabek 24 euro. Autobusak Villabonatik eta Tolosatik aterako dira, 04:30ean.

San Blas jaietako azken eguna «aspaldiko jendetsuena» izan da

Tolosa » Antolatzaileak «oso gustura» azaldu dira jaiak izandako harrerarekin; ostiralean eta larunbatean «jende gutxiago» izan zen.

I. GARCIA

San Blas auzoko festak asteburu honetan ospatu ziren eta antolatzaileak «oso gustura» azaldu dira balorazioa egiterakoan. Batez ere jendea igandean azaldu zen. Eguraldi onak lagundu zuen jendea San Blas basiliza ingurura joateko. «Aspaldi izan den jendetsuena» izan da», azaldu dute antolatzaileak.

Ostiralean eta larunbatean «jende gutxiago» ibili zen, baina oroko-

rrean «gustura» daude. Herenegun goizean auzoko hildakoen izenean meza egin zuten. Ondoren Amaro zoko dantza taldeak emanaldia egin zuten eta hori eta gero auzokolarien lehiakusteko aukera izan zuten bertara joandakoek. Otaño eta Lasa aritu ziren nor baino nor. Tarte Peñagarikano eta Egaña bertsolarien saioak entzuteko aukera izan zen. Arratsaldean ere bertsolariak aritu ziren eta trikitilariak jarri zuten musika.

700 txorizo-ogitarteko

Jendea erruz joan zenez, janari postuan lan ugari izan zen. Hala, erroskilak saltzeaz gain, txorizo-ogitartekoak saldu ziren. 700 ogi-opil zituzten eta guztiak amaitu ziren.



Amarozko dantza taldearen emanaldia San Blas auzoan. ANDER OTEZABAL

libre!

munduan libre bizi ahal izateko **Egunkaria** libre munduan bizi ahal izateko

2003. OTSAILAK 20

“Egunkaria ixtea sinestezineko gertaera izan da guretzat. Erasoa da prentsa askatasunaren eta giza eskubideen kontra.”

Toni Ebner, Midas hizkuntza minorizatuetako egunkariaren elkarteko presidentea



www.egunkaria.info

Mikel Garaiondo Leitza atxilotu dute Garzonek agindutako operazioan

ERREDAKZIOA

Mikel Garaiondo gipuzkoarra Leitza atxilotu zuen Espainiako Polizia ikandea eta astelehena bitarteko gauean. Garaiondo ez bada Leitza bizi, gau horretan herrian zegoen. Baltasar Garzon epaileak gidatutako operazioan, Garaiondoz gain ezker abertzaleko beste 13 kide atxilotu zituzten Euskal Herriko eta Espainiako hainbat lekutan.

Atxilotuei Batasunaren Mahaia Nazionala berregiteko ahaleginaren aritzea, eta, ondorioz, «erakunde terroristako» kide edo laguntzaile izatea leporatzen diete. Atxilotuen etxebizitzak, eta EHAK eta ANVko egoitzak miatu dituzte.

Arritzagako minetara ibilaldia egingo dute igandean Lizarrusti Parketxeak antolatuta; bidean geologiari ariko dira gehien bat. Hala ere, paisaia horiez gozatzeko joateak bakarrik merezi du.

Joan-etorri bat minetara

NEREA URBIZU

Amezketak Fernando amezketarrak eta Txindoki mendiak ere ezagun egin dute, besteak beste. Baina badira naturak eman dien beste leku bat, jende askori jateko eman dien beste toki ezkutu bat, alegia: Arritzagako minak. Oso ezagunak izan ziren Euskal Herrian hainbat mendetan zehar, izan ere, 1966. urtera arte funtzionatu zuten, gutxienez, 1735. urtetik. Lizarrusti parketxeak geologia lantzeko asmoz igandean ibilaldi bat antolatu du mina hauetara. Nork daki, agian, urre edo kobre zatiren bat lor daiteke.

Kobrea ematen zuten mina hauek. Baina kobre hau guztia ateratzeko, gutxienez hiru urteko lana eskatu zuen aurretik: Aralar-ko eta Amezketa-ko pago asko bota, labeak eta fundizio-ko lantegia egin, gurpilak, presa, kanalak, ikaztegia... Asmo honekin hasi ziren 10 bat lagun. Badirudi, Nafarroako Alliko Juan Antonio Argaña apaiza izan zela Aralarren mineral-pusketaren batzuk biltzen lehenengo, Petriati alemaniarren laguntzaz.

Elkarte osatu zuten

Elkarte bat osatu zuten honen inguruan, aipatutako bi gizonen, eta beste bostek. Baina 1735ean Amezketa-ko Udalak elkarte honi legez zegokion emateko eskatu zion, eta minak kontrolatzeko asmoz amezketar bat jarri zuten: Markos Antonio de Maiz.

Hainbat buruhauste eman zituen minak mende hauetan zehar, eta urte batzuetan ez zen produktiborik izan. Zatiketarik izan ziren tartean, baina aldaketa nabariena 1766. urtean: 117 meatzarik egiten zuten lan, Juan Antonio Christobal Fat Solerren etorrerarekin

(alemaniarra). Nonbait aditua zen meatzaritza kontuetan Nafarroan, eta hori nabaritu egin zen. Minerala atera eta atera ibili ziren garai haietan, Arritzagan eta Buruntzuzinen. 1772tik 1792ra da etekin handienak lortu zuten garaia.

Azken urte horretan, 1792an, hain zuzen, Fatek lantegia uztea erabaki zuen eta Venezuelara joan zen, han ere negozio honi eutsiz. Ondorioz, gainbehera etorri zen berriro, eta langile batzuk lana utzi behar izan zuten.

Beste ondorioetako bat mendian herrikka baten jaiotza izan zen: langileek osatua zen, izan ere, bada zatitxo bat herritik minetara (edo Nafarroatik joanda ere, minetara). Arritzagako herrikka edo plobatua zen. Tabernak ere izan ziren.

Hitlerrek mina hauen beharra

Azken gerrate zibilazela eta, Hitlerrek Francori laguntza eskatu zion, eta tartean, mineralak: burdina, pirita, wolframioa eta kobrea. Lehendabiziko gauza Sociedad Hispano-Marroqui de Transportes sortzea izan zen, eta honekin meategiak ustiatuko zituen konpainia lanean jartzea. Bilboko Montana enpresaren besoetako bat Gipuzkoan Zeraingo, Leitzarango eta Aralar-ko meategiak izan ziren.

1930etik 1945era bitartean berriro lanean jartzeko azken aurreko ahalegina izan zen, alemaniarren zinat, baina ez zuten etekinik atera; egindako zuloetatik ez zuten nahi-behar zuten mineralik atera.

1950. hamarkadan berriz

Buruntzuzin aldean berriz ekin zitzaion lanari eta lan honi lotuta Martzelino Benito amezketarra izan zen. Egun osoan zehar egiten zuten lan, 12 orduko lanegunetan banatuta, eta amezketarrak ga-



Lizarrusti Parketxeak antolatu duen ibilaldian minetako ibilaldia egingo dute eta geologiari erreparatuko diote. N. URBIZU

rraioaz arduratzen ziren. 1966. urtean itxi zituzten atek mina hauek. Zapore txarrarekin gainera, ustekabeko leherketa baten ondorioz, bi meatzari larri zauritu ziren-eta: Guillermo Ferreiro eta *Salamankino*.

Informazio gehiago

Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, Joxe Mari Otermin idazle amezketararen *Amezketak, bide luze bezain malkarrak* liburuan aurki daiteke. Bestela, Jesus Elosegi Irazustaren *Las minas de cobre de Aralar* liburuan.

GEOLOGIA IGANDEKO MINETARAKO IBILALDIAN

Lizarrusti Parketxeak mendi ibilaldi bat antolatu du datorren iganderako. Urterrilean izandako hilabete tematikoaren ostean berriz ere lasaitasunera bueltatu eta ibilaldi tematiko bat antolatu du Lizarrusti Parketxeak hilabete honerako. Oraingoan, geologia gaia landuko dute, eta «horretarako Amezketa-ko minetara joango gara». Bertan, Arritzaga bailarako geologia egiturak eta harkaitzak zein fosilak aztertuko dituzte. Badira batzuk, eta paisaiak bakarrik merezi du.

Ibilaldirako hitzordua igandean 08:30ean Amezketa-ko plazan izango da. Aipatutako ibilbidean dagoen zati bat «nahiko aldapatsu eta harkaiztsua da» eta gune horretan bi talde egingo direla inork arazorik izan ez dezan. Segurtasun neurriak, beraz, bermatu egin dituzte.

Ibilaldira eramatea gomendatzen dena honakoa da: oinetako aproposak, jantzi egokiak (goiko inguruan hotza egingo du), zira (euria egingo balu) eta hamaiketakoak. Eguerdirako bueltan izatea espero dute.

Laburrak**Ibarra FSk 4-4 berdindu zuen Gernikaren aurka**

IBARRA ● Ibarrek FSk berdinketa lortu zuen etxean iragan larunbatean Gernika taldearen aurka. Hirugarrena eta laugarrenaren arteko partida izan zen eta 4-4ko emaitzak bi taldeen indarra agerian utzi zuen. David Pradosek 3 gol sartu zituen eta Karrerak laugarrena. Berdinketa honekin, ibarrek 32 punturekin laugarren postuan jarraituko dute.

Defentsa pertsonalaren inguruko ikastaroak

IBARRA ● Ibarra Belabietako kiroldegian defentsa pertsonalaren inguruko ikastaroak antolatuta dituzte. Ikastaroa 16 urtetik gorakoentzat antolatuta dago eta izena emateko lekua, kiroldegi bera izango da. Ordu egunak dagokionez, goizean 09:00etatik 13:00ak arte egongo da zabalik eta arratsaldean 15:00etatik 22:00etara. Ikastaroak 18an hasiko dira.

KMK 08ren bilera bihar 19:00etan ikastolan

IRURA ● Kilometroak 2008ko antolatzaileek jakinarazi dutenez, bihar 19:00etan ikastolako areto nagusian bilera egingo dute. Bertan, besteak beste martxoan eta apirilean arropa saltzeko egingo diren irteeren inguruan hitz egingo dute. Irteera horien inguruan egutegi bat egitea beharrezkoa ikusten dutenez, bihar egingo duten bileran egutegia osatuko dute.

Galarretan Altuna anaiak eta Patxi Zeberio

ERREMONTEA ● Hernaniko (Gipuzkoa) Galarretan erremonte jaialdiak egongo dira gaur eta etzi. Gaurkoan, Altuna I.ak Auzmendi-ekin batera, Juaristi-Aizpuru bikotearen aurka jokatu du. Etzi Altuna II.ak eta Zeberio II.ak jokatu dute. Amezketarrak Etzeberria III.ekin jokatu du eta elduaindarrak Eizagirrerekin, Ezkurra-Etxeberen aurka.

EHNA tramitatzeko aukera otsaila guztian zehar

ALTZO ● Altzoko udaletxean otsaila guztian zehar Euskal Herriko Naziotasun Aitormena tramitatzeko aukera egongo da. Udaletxeko ordutegiaren baitan egin daiteke, eguerdian hain zuzen ere. Euskal Herriko Naziotasun Aitormena egiteko 15 euro ordaindu behar dira, horretaz gain, Altzo edo norbere herriko errolda agiria eta hiru argazki txiki behar dira.

Eusko Alkartasuneko Mila Garcia De Iturrospek zinegotzi kargua utzi du

Ibarra » Zinegotzi lekua Jon Ander Bastarriak hartuko du zinegotzi izateko espedientea bideratzean.



EAren zinegotziak aurkitzen ziren lekuan hutsune bat zegoen atzo. ASIERIMAZ

ASIERIMAZ

Udalbatza osoaren ezohiko bilkura egin zuten atzo Ibarra udaletxean. Bertan ohiko zinegotziak elkartu ziren, Eusko Alkartasuneko Milagros Garcia de Iturrospe izan ezik. Ikusleen artean, EAE-ANVren sei jarraitzaile aurkitzen ziren, *Guk Independentzia* jartzen zuten eskuorriak zituztela. Bilkura areto kanpoan berriz, PSE-EEren bi zinegotziak lau bizkartzain aurkitzen ziren.

Garciaren kargu uztea

Ezohiko bilkuraren gai-zerrendaren lehen puntuan, 2008ko martxoaren 9ko Legebiltzar eta Senaturako Hauteskunde Mahaletako kideak aukeratu zituzten zozketa bidez. Legeak eskatzen dituen urratsak eman ostean, zozketan irrendako herritarrei, hauteskunde mahaletan izango duten postua jakinaraziko diete. Zozketari dagokionez, bera zenbakien bidez burutu zen, zinegotzi bakoitzak zenbaki bat aukeratzeko zuzen mahai bakoitzean eta idazkariak zenbaki hori zuten herritarren izena aipatzen zuten.

Ezohiko bilkuran punturik esanguratsuen ordea, Eusko Alkartasuneko Milagros Garcia de Iturrospe zinegotziaren kargu uz-

tea izan zen, «arrazoi pertsonalak» argudiatuz. Ondorengo puntuan, Eusko Alkartasuneko Vanesa Alzatek, Francisco Javier Izagirrek eta Juan Carrerak hautagaitza zerrendari uko egiten ziotela azaltzen zen. Mila Garcia de Iturrosperen lekuan, Jon Ander Bastarriak aukeratu da, «udaleko zinegotzi izendatzeko espedientea bideratze» erabaki delarik bilkuran.

Eguneko gai-zerrendan «Gipuzkoako eta Donostiako Kutxarako hauteskundeetarako udalerrien elkarketa berrestea» egokitu zitzaie alderdi politikoei. EAren hiru zinegotziek, EA Jren lauek eta Aralar-EBren bakarrak baiezko botoa eman zuten, PSE-EEren biek berriz aurka bozkatu zuten.

«Ez dugu atzera egingo»

Ezohiko udal bilkuraren amaieran, EAEren jarraitzaileek eskuorriak PSE-EEren zinegotzien aurrean jarri zituzten, «ez dugu atzera egingo milimetro bat ere!» ohikatuz.

Lan aukera berriak Uli Mankomunitatean

A. IMAZ

Uli Mankomunitatea osatzen duten herrietan, hau da, Gaztelu, Belauntza, Leaburu-Txarama eta Oresan egiten diren udaleku irekietan begirale bezala egoteko deialdi ireki egin dute lau udalek.

Izena emateko epea zabalik aurkitzen da jada, hilaren 27an amaituko delarik. Hain zuzen, ludotekan eta udaleku irekietan lana egiteko begiraleak kontratatu nahi dituzte, horretarako baldintza batzuk jarri dituztelarik; «hemezortzi urte beteta izatea eta euskara menperatzea aurkitzen dira».

Lan egiteko interesa dutenak, herri bakoitzeko udaletxera edo Uli Mankomunitatera joan daitezke, oinarriak eta instantzia eskaera jasotzera. «Interesatuek baldintzak eta dituzten meretzinenduen agiriak instantzia betearekin batera entregatu beharko dituzte».

Uli Mankomunitateak bere al-

detik, ondorengo zenbakia jarri du informazioa zabaltzeko asmoz, 943 68 22 28a hain zuzen. Udaletxe bakoitzari dagokionez, ordutegi ezberdinak dituzte. Oresako udaletxean, astearte eta ostegun goizetan egin ahal izango dira eskaerak. Gaztelukoan berriz, astelehenean eta asteartean 8:00etatik 13:00etara, eta ostegunean 10:30etik 14:00etara. Belauntzan 9:30etik 15:00etara egongo da zabalik udaletxea eta Leaburu-Txaraman udaletxeko ordutegia begiratzea eskatu dute.

Beharrezko agiriak

Beharrezko agirien artean, hauek izendatu dituzte: «NANren fotokopia; kotxeko karnetaren fotokopia, edukiz gero; euskara mailaren ziurtagiria, izanez gero; ikastaroen titularen kopiak eta ikasketen tituluren kopiak». Horretaz gain Kurrikuluma ere eskatu dute.



Iritsi da 'Parlamautoa' Triangulora

TOLOSA ● Zeu gidaria lelopean *Parlamautoa* Tolosara gerturatu nahi izan du Eusko Legebiltzarra. Hau aukerzera etorri zen atzo, Izaskun Bilbao Legebiltzarreko lehendakaria. Euskal Autonomi Erkidegoko hiru probintzietatik zehar ibili ondoren, atzo eta gaur Tolosa

sako Triangulon egongo da bisitarien zain; «herri hauetako biztanleek gehien interesatzen zaizkien gaien buruzko informazioa jaso ahal izango dute eta haien iritziak eta iradokizunak legebiltzarkideei helarazi ahal izango dizkiete *Parlamautoaren* bitartez». E.



Iturengo kanporaketa eta gero lehenengo finalurrekoetarako sailkatu da Diego Riaño. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Finalurrekoetarako sailkatu da Diego Riaño

Leitza » Larunbatean lehiatuko da, Iruñeako Txantrea auzoan, joan den asteburuan sailkatu eta gero.

NAIARA GARZIA

Diego Riaño leitzarrak asteburu honetan ospatutako 2008ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako bi kanporaketak eta gero larunbat honetan egingen dituzten lehenengo finalurrekoetan parte hartuko du Iruñean, Txantrea auzoan, Ama Salestarren aretoan.

Asteburu honetan jokatu dituzte 2008ko Nafarroako Bertsolari Txapelketako bi kanporaketak, ostiralean Leitzan eta larunbatean Iturenen. Lehenengoan Juan Mari Lopez nagusitu zen eta biga-

rrenean, berriz, Xabier Legarreta. Bi bertsolari hauez eta Diego Riañoz gain, beste bi sailkatu dira finalurrekoetarako, lortutako puntuak eskertzen: Xabier Terreros eta Ander Fuentes.

Iturengo kanporaketa

Ostiralean Leitzan gertatu zen bezala, jende asko hurbildu zen Iturengo bertso saioa ikustera, 120 lagun inguru. Iturengo udaletxeko ganbara bete zuten. Nafarroako Bertsosale Elkartetik azaldu dutenez, «Iturengo kanporaketa lehen baina biziagoa izan zen eta jende asko erakutsi zuen». Alazne Untxalo, Iker Gorosterrazu, Ander Fuentes, Xabier Terreros, Xabier Legarreta eta Joar Taintak parte hartu zuten larunbatean. Azken honek Garazi Tabernaren ordezkari izan zen parte,

eta 15 urte izan arren, «txukun baino hobeto» aritu zela azaldu dute Bertsosale Elkartetik. Bertako Gontzal Agotek bertso saioa deskribatu du. «Saio osoan zehar lehia bizia izan zen Xabier Legarreta aranoar eta Xabier Terreros lesakarraren artean. Azkenean lehena atera zen garaile, baina oso estu. Saio erregularra egin zuten bi bertsolariok eta puntuetan Leitzako kanporaketan kantatu zuten bertsolarien gainetik ibili ziren».

2 leitzarrak finalurrekoetan

Diego Riaño, beraz, larunbat honetan parte hartuko du eta Migel Mari Elosegik Luze zuzenean hirugarren finalurrekoetara pasako da, ez baitu kanporaketetan parte hartu beharrik izan. Bere txanda, beraz, martxoaren lehen izanen da, Beran.

» 3 FINALURREKOAK

■ **Otsailaren 16, Iruñean.** Diego Riaño, Erika Lagoma, Julen Zelaeta, Bittor Elizagoien, Oier Lakuntza eta Xabier Terreros. Txantrea auzoko Ama Salestarren aretoan, 18:00etan.

■ **Otsailaren 23, Lekunberrin.** Iñigo Olaetxea, Joxe Juan Zubieta, Julio Soto, Oskar Estanga, Aritz Saragueteta eta Xabier Legarreta. Lekunberriko kiroldegian, 18:00etan.

■ **Martxoaren 1, Beran.** Migel Mari Elosegik Luze, Jon Barberena, Eneko Lazkoz, Jon Elizetxe, Juan Mari Lopez eta Ander Fuentes arituko dira Berako Kultur Etxean, 18:00etan.

Esku bakarrarekin ere bere marka gainditu du Inaxio Perurenak

Leitza » Hagitz erraz altxatu zuen 230 kiloko harria, hiru kolpetan, eta sailkapenean bigarren doa, bere aitaren atzetik.

17 segundo behar izan zituen harri zilindrikoa altxatzeko. Marka honetan bere aitak lortutako markatik gertuago dago (Iñaki Perurenak 267 kilo jaso zituen), eta beraz bigarrena da sailkapenean.

N. GARZIA

Inaxio Perurenak bere marka gainditu zuen herenegun Getxoko Jaialdian, esku bakarrarekin 230 kilo altxatu ondoren. Altxaldia hagitz garbia izan zen eta leitzarrak

Altxaldi garbia

Hiru kolpetan altxatu zuen Perurenak harria. Beroketetan aurrekusten zen bezain egun ona izan zuten, hauetan 195 eta 220 kiloko harriak aise altxatu baitzuten 2 eskuekin.



Leitziatik eta Aresotik ere ikusle ugari hurbildu ziren partida ikustera. N. GARZIA

Bengoetxea eta Ruiz garaile, Olazabal eta Lasaren aurka

Eskuz binakakoa » Ruizek eta Bengoetxea VI.ak Olazabal eta Lasari irabazizieten atzo Beotibarren jokatu zuten partidaren.

Olazabal eta Lasaren aurka. Pilotazale asko izan ziren atzo Beotibarren, Julian Iparragirren ere bertan zen, partidaren amaieran «markagailuak erakusten zuena baino lan gehiago egin dute Olazabalek eta Lasak», 22-6 galdu baitzuten.

N. GARZIA

Bengoetxea VI.ak eta Patxi Ruizek atzo Tolosako Beotibar Pilotalekuan binakako txapelketako laugarren garaipena lortu zuten Ola-

Barriola eta Gonzalez, aurrera Ostiralean Gonzalezek eta Barriolak Olaizola II.aren eta Mendizabalen aurka ozta-ozta irabazi zuten, 22-21eko emaitzarekin.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Aduna.** Bilera ireki bat antolatu dugu herriko talde eta elkarte guztietako ordezkariak eta gainerako herritar guztientzat martxoaren 8ari, Emakumeen Nazioarteko Egunari, lotuta egun horretarako edo aste horretarako programa bateratu bat antolatzeko helburuz.

■ **Albiztur.** Otsailaren 23an, Santa Marinako Segoretxe-berri jabetxean egingo den bertso afarirako sarrerek salgai daude, 27 euroren truke. Bertsotan, Zubeldia eta Peñagarikano bertsolariak ariko dira. Sarrerak, jabetxean bertan, Albizturko Udaletxean eta 665 74 63 23 telefono zenbakira deituta eros daitezke.

■ **Altzo.** Udaletxean EHNA tramitatzeko aukera dago. 15 euro, 3 argazki eta errolda agiria behar dituzte horretarako interesa dutenek.

■ **Ibarra.** Bizi Nahi elkarteak mahai jokoan txapelketa antolatu du hilaren 18tik aurrera (datorren astelehenean). Izen ematea, elkartearen bertan.

■ **Ibarra.** Bame barnetik, Ibarra izenburupean Ibarri buruzko DVDa jarri berri du salgai Udalak eta Benito Izagirre kultur etxean dago, bai eta udaletxean ere, 6 eurotan. Bertan, herriko ohitura, txoko, bizilagun, eraikin, auzo eta mendi ezberdinak ikus daitezke irudien bidez.

Kirolak

■ **Villabona.** Iparla mendira (1.044 metro) irteera antolatu du Aizkardi mendi elkarteak iganderako, Nafarroa eta Behe Nafarroa artean. Izen-ematea, elkartearen bertan edo 943 694458 (Joxan) telefonon.

■ **Tolosa.** Venta Zunbeltz - Etxabarri irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak iganderrako, Dulantz (1.239 metro), Larratza (1.055 metro) eta Azantzako Haitza mendiak igoz. Sei orduko ibaldia da. Izen-ematea, elkartearen edo 943 652789 telefonon.

■ **Tolosa.** Hilaren 16an eta 17an (datorren asteburuan) Formigalera (Aragoi, Espainia) iraupen eta alpino eskia praktikatzera irteera antolatu du Oargi mendi elkarteak. Izen-ematea 637 830380 zenbakian egin daiteke.

Erakusketak

■ **Ibarra.** Jose Luis Lopez tolosararen margolanak daude Jubila-

Amaitu da mozorroen festa

Areso » Asteburuan Inauteriak ospatu dituzte eta herenegun amaitu ziren, plazan egindako musika saioarekin.

N. GARZIA

Herenegun amaitu ziren Aresoko Inauteriak eta aurten aresoarrek eguraldiaren laguntzarekin inoiz baino gehiago gozatu dituzte, izan ere, giro ederra egin du kalean ibiltzeko.

Aresoko Inauteriek, guztiek bezalaxe, kalearekin lotura handia du. Kalean hasi zuten herriko txikiak festa ostiralean, eskolako ikasleak hippyz jantzi eta traktorearen atzetik herriko buelta egin zuten. Aurten, obrak amaituta daudenez, eta eguraldi hobea egin duenez, aresoarrek ez dute lokatz izpirik zapaldu, lehen-gor urtean ez bezala.

Baserrietan eta herrian eskean

Ostiralean ere festa kalean hasi zen, gosaldia ondoren, gazte koa drila herriko baserrietan eskean ibili baitzen pandereta eta trikiti-xarekin. Arratsaldean plazan musika izan zen. Igandean ere gazteak eskean atera ziren, herrian barrera, eta arratsaldean ere soinuak izan zuten plazan.

Kaleaz gain, Pake-Toki elkarteak Inauterietako egoitza izan da aresoarrentzat, han egin baitituzte.



Herria kolorez bete zuten igandean gazteak, herrian barrera eskean ibili baitziren. A. OTEZABAL



Areso herri txikia da, ohiturei eusteko leku ezin hobea, eta urtero herriko gazteak eskean ateratzen dira. A. OTEZABAL

A Agurrak



Urte askoan!

Maria Imaz. 90 urte. Bi biloben partetik, Eneritz eta Alaine, eta familia guztiaren partetik.



Urte askoan!

Ainhoa (Ibarra). Gaur 12 urte. Zorionak eta muxu asko familiaren partetik.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan irizkien erantzunik.